

2. Ariketa. Eibar

A. Testua: Soldatarik gabe, herritarrei laguntzen

Eibarko Victor Sarasketa lantegian 31 urte egin zuen lanean eta ondoren Patronato Eibarres errehabilitazio-zentrura joan zen. Erabakia hartzea kosta zitzaion, baina lan "humanoagoa" zelakoan aukeratu zuen bigarren hau. Jubilatuta egon arren, oraindik egunero joaten da lanera, bere borondatez, jendeari laguntzarren.

—Ni sartu nitzan han. Ni neuan Bitor Sarasketanian. Hogeta hamaika urte ein nittuzen Bitor Sarasketanian eta karta bat bialdu zesten esanaz ze ia hona etorriko nitzakian. Kosta jatan. Ya Sarasketanian etxeko einda ta kosta jatan, baiña pentsau neban hemen humanidade gehixau zeuala, premiña ekan jendiandako alkartasuna edo laguntasuna edo zeoze hemen gehixau, ta
5 bueno, oso lagun amaittu nitzan Bitor Sarasketanian. Oindiok be, esaten detsut, Bitor Sarasketan billobak felizitaten nabe nere egunian. Ez dira /eztira/ asko gelditzen e, ya Sarasketatarrak. Bitor Sarasketan, nausixan, aittan umerik ya ez da /ezta/ gelditzen. Danak hil dira, baiña haren seme-alabak eta jarraitzen dabe, bai. Danekin dakat, esaten detsut, hartu-emon haundixa. Bueno, ba, azeptau neban hau puestuau. Gero be eurokin, ba, hartu-emon
10 haundixa euki dot. Eta hillan... esto... ni etorri nitzan hona milla bederatzirehun ta hirurogeta hamabixan. Hori da, Bitor Sarasketanian milla bederatzirehun ta batian hasi nitzan, berrogeta batian. Oseake hogeta hamaika urte ein nittuzen ta justo hemen marzuan aurrenian sartu nitzan. Gero larri gebizen diruakin ta ni larogeta hamahiruan jubilau nitzan. Jubilau nitzan ta hementxe jarraitzen dot lanian lehen bezela, kobrau barik. Gaiñera, akordau be ez jata /etxata/
15 eitten kobrau bihar dotenikan. Bestieri pagatzen detset eta ni trankil-trankil gelditzen nai, ni nere jubilaiziñuakin ondo.

B. Galderak

1. Aurkitu itzazu testuan mendebaldeko euskararen lau ezaugarri eta aipa itzazu testuko adibideak (4 puntu):

- a.
- b.
- c.
- d.

2. Aurkitu itzazu testuan mendebaldeko euskarari ez dagozkion bi ezaugarri eta aipa itzazu testuko adibideak (2 puntu):

a.

b.

3. Berridatz ezazu testua euskara batuan (4 puntu):